**JAUN/ANDRE HORI:**

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Vitoria-Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2023ko MAIATZAREN 16an,** 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

GAI-ZERRENDA

**EXCMO\A. SR.\A:**

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **16 DE MAYO DE 2023**, con el siguiente

ORDEN DEL DÍA

| | | |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| SEGURTASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD |
| Erabaki-proposamena, Estatuko Administrazio Orokorrarekin (Barne Ministerioa) lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematekoa, hauteskunde-kudeaketaren arlokoa. | 2 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con la Administración General del Estado (Ministerio del Interior), en materia de gestión electoral. |
| Erabaki-proposamena, Gurutze Gorria dirulaguntza izenduna jasotzeko berme erreala eratu beharretik salbuestekoa. | 3 | Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Cruz Roja de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada. |
| LAN ETA ENPLEGU SAILA | | DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO |

| Euskara | Zk. | Castellano |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmena aldatu eta luzatzeko gehigarria izenpetzeko baimena ematekoa. Hitzarmenaren helburua Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) ikasleei prestakuntza hobea ematen laguntzea da, kanpoko praktika akademikoak, curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak egitea erraztuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzan. | 4 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la Adenda de modificación y prórroga del Convenio con la Universidad del País Vasco, para contribuir a la mejor formación de los alumnos de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU), facilitando la realización de las prácticas académicas externas, curriculares y extracurriculares, en la Inspección de Trabajo del País Vasco. |
| Erabaki-proposamena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Hezkuntza Sailak kudeaketa-gomendiorako Akordioa izenpetzeko baimena ematekoa, EAEko lan-esperientziaren edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran parte hartzen duten pertsonei zuzendutako 2023rako prestakuntza-programazioa egiteko. (Dispositiboaren gomendioa) | 5 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Acuerdo de encomienda de gestión de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo al Departamento de Educación, para la realización de la programación formativa 2023 dirigida a personas participantes en el procedimiento de evaluación y acreditación de las competencias profesionales adquiridas a través de la experiencia laboral o de vías no formales de formación de la CAPV. (Encomienda del Dispositivo) |
| Erabaki-proposamena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko bost enpresa-elkarteren artean bost hitzarmen izenpetzeko baimena ematekoa, langabezian dauden pertsonei zuzendutako birrorientatzeko, birkualifikatzeko eta birkokatzeko proiektuak egiteko. | 6 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de cinco convenios entre Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, la Diputación Foral de Bizkaia, y cinco agrupaciones empresariales de Bizkaia, para la realización de proyectos de reorientación, recualificación y recolocación de personas en situación de desempleo. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2023ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntza gisa. | 7 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 euros, en concepto de ayudas para acciones locales de promoción del empleo para el ejercicio 2023. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitako Enplegu-Zentro Berezietako lanbide-jarduera bultzatzen duten unitateak finantzatzeko 2023. ekitaldian. | 8 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, en concepto de ayudas para financiar las Unidades de Apoyo a la actividad profesional en Centros Especiales de Empleo para el ejercicio 2023, previstas en el Decreto 168/2019, de 29 de octubre. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko 2023rako dirulaguntzak finantzatzeko (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan arautukoak). | 9 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros en concepto de ayudas, para el año 2023, destinadas a la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, reguladas en la Orden de 4 de mayo de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social. |

| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea aldatzeko egindako lege-proposamena aintzat hartzeari buruz Jaurlaritzak duen iritzia adierazteko. | 10 | Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley de modificación de la Ley 3/1985, de 27 de febrero, por la que se crea y regula la Institución del Ararteko. |
| Erabaki-proposamena, interes-taldeen eragin-jarduera arautzen duen lege-proposamena aintzat hartzeari buruz Jaurlaritzak duen iritzia adierazteko. | 11 | Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley reguladora de la actividad de influencia de los grupos de interés. |
| Erabaki-proposamena, Jaurlaritzak bere iritzia azaltzeko lege-proposamen honi buruz: Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentziako merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Gizarte Bonu Termikoa Kudeatzeko eta Ordaintzeko informazioa ematea arautzekoa. | 12 | Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley que regula la comunicación de información por los comercializadores de referencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la Gestión y Pago del Bono Social Térmico en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 13 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA | | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| Lege-aurreproiektua, Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketarena. | 14 | Anteproyecto de Ley de Transición Energética y Cambio Climático. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) 2023ko ekitaldirako zuzeneko dirulaguntzen deialdia egiten duen agindua finantzatzeko. | 15 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la Orden por la que se convocan, para el ejercicio 2023, las ayudas directas de la Política Agrícola Común (PAC). |
| EKONOMIA ETA OGASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA |

| Euskara | Zk. | Castellano |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Osasun Sailak 2023ko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei erantzuteko, 30.100.000 euroko zenbatekoarekin, Osakidetzaren inbertsioak finantzatzeko. | 16 | Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Salud en el ejercicio 2023, para financiar inversiones de Osakidetza, por importe de 30.100.000 euros. |
| Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2023ko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei erantzuteko: Euskal Irrati Telebista (EITB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren gizarte-funtsa handitzeko eta EITB Media SAU sozietate publikoari transferentzia egiteko, 7.825.000,00 euroko zenbatekoarekin. | 17 | Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en el ejercicio 2023, al objeto de financiar la ampliación del fondo social del ente público de derecho privado Radio Televisión Vasca (EITB) y la transferencia a la sociedad pública EITB Media SAU, por importe total de 7.825.000,00 euros. |
| HEZKUNTZA SAILA | | DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN |
| Erabaki-proposamena, Hezkuntza Sailaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) artean kudeaketa-gomendiorako Akordioa izenpetzeko baimena ematekoa. Akordio horren bidez, 2022-2023 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko irakasleak eta langileak euskalduntzeko ekintzak egiteko lankidetza ezartzen da. | 18 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Acuerdo de encomienda de gestión entre el Departamento de Educación y el Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE), por el que se establece la colaboración para la realización de acciones de euskaldunización del profesorado y del personal de Educación Especial de los centros docentes de enseñanza no universitaria durante el curso 2022-2023. |
| LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA | | DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES |
| Erabaki-proposamena, Alokabide SAU sozietatearen 2022 ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena onartzekoa. | 19 | Propuesta de Acuerdo de aprobación de las cuentas anuales e informe de gestión de la Sociedad Alokabide, S.A.U., correspondiente al ejercicio 2022. |
| OSASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE SALUD |
| Erabaki-proposamena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko plantilla handitzekoa, 19 lanpostu berri sortuz, eta langile-kopuruaren egiturazko mugak aldatzekoa. | 20 | Propuesta de Acuerdo por el que se amplía la plantilla del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud mediante la creación de 19 nuevos puestos, y se modifican los límites de efectivos estructurales de personal. |

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

21

Dekretu-proiektua, espetxe-arloko lana eta ikerketa aintzatesten duen "Francisco Javier Gomez Elosegui" saria sortu eta arautzekoa.

Proyecto de Decreto por el que se crea y regula el Premio "Francisco Javier Gomez Elosegui" de reconocimiento a la labor e investigación penitenciaria.

22

Erabaki-proposamena, zenbait erakunde berme erreala eratu beharretik salbuestekoa, 2022. urterako Garapenerako Lankidetza Proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak jasotzeko.

Propuesta de Acuerdo de exoneración a determinadas entidades de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de diversas ayudas económicas para la financiación de Proyectos de Cooperación para el Desarrollo para el año 2022.

23

Erabaki-proposamena, Loiolaetxea Gizarteratzeko Elkartea dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik salbuestekoa, etxebizitza komunitarioak garatzeko proiekturako 2023-2024.

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la asociación Loiolaetxea para la Integración Social, de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada para el proyecto de desarrollo de viviendas comunitarias 2023-2024.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

24

Erabaki-proposamena, Deustuko Unibertsitatearekin sinatu beharreko lankidetza hitzarmena aintzat hartzekoa, Deustuko Unibertsitateko liburutegia Euskadiko liburutegien sisteman integratzeko.

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con la Universidad de Deusto para la integración de la biblioteca de la Universidad de Deusto en el sistema bibliotecario de Euskadi.

25

Erabaki-proposamena, Galtzagorri Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2023an "Irakurketa sustatzeko tailerrak (eskoletan irakurzaletasuna sustatzea)" proiektua egiteko.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad Galtzagorri Elkartea para la realización del proyecto "Talleres para el profesorado de animación a la lectura" (fomento de la lectura en las escuelas) en el año 2023.

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

LEGEBILTZAR-EKIMENAK

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 11.

En Vitoria-Gasteiz, 11 de mayo de 2023.

**SIN./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO**